

EUSKAL HERRIKO BERTSOLARIEN TXAPELKETA 2001

TXAPELKETEN HISTORIA

Gerraurreko txapelketak :1935-1936

Aspaldidanik jokatu izan dira bertso jokoak baina 1935. urteko Bertsolari Eguna deituriko lehiaketa hura juzgatu izan da txapelketa ofizialen lehen kate-maila. Euskaltzaleak eta Eusko Gaztediak elkarteak izan ziren antolatzaileak. Gerra aurreko garaiak ziren; Euskaltzaindiak hartu zuen lekukoa gero, gerra ostean, 1960an, eta berak antolatu zituen 1982ra bitarteko sei txapelketak, Bertsozale Elkarteak txanda hartu zion arte. Basarrik irabazi zuen lehen hartatik abiatuta, hamabi izan dira jokatu direnak.

1935 - Euskaltzaleak eta Eusko Gaztedi Elkarteak antolaturik, Donostiako Poxpolin antzokian jokatu zen (1935-01-20). Antolatzaileek izendatutako mugaz bi aldeetako 20 bertsolari lehiatu ziren egun bakar batean. **Basarrik** (Iñaki Eizmendi) jantzi zuen txapela. *Euzkadi* egunkarian Basarri ezizenez sinatzen zuen kronista gazteak.

1936 - Euskaltzaleak eta Eusko Gaztedi Elkarteak antolatu zuten, baina lehenengoan ez bezala hiru sailkapen saio antolatu ziren herrialdeetan. Bigarren txapelketan 30 bertsolari lehiatu ziren finalerako 10 lekuak hartzearen. Donostiako Victoria Eugenia antzokian (1936-01-19). Manuel Lujanbio **Txirritak**

eraman zuen txapela. Bizi osoan bildutako merituez gainera, bertso zoragarriak bota baitzituen Victoria Eugenia.

Euskaltzaindiak antolatutako txapelketak : 1960-1986

1960an, gerrak eta frankismoak eraginiko etenaldi luzearen ondoren, Euskaltzaindiak hartu zien txanda aurreko antolatzaileei. ("Campeonato Mundial de Bersolaris" zeritzon orduko karteletan). Herrialdeetako txapelketak jokatu ziren lehenik; 56 bertsolarik hartu zuten parte. Txapelketa Nagusia Donostiako Victoria Eugenia antzokian jokatu zen (1960-12-18) hamar bertsolariren artean. **Basarrik** bere bigarren txapela janzteia lortu zuen ia 26 urte beranduago. Garrantzi berezia zeukan txapel honek, oso bestelako giroan irabazia zuenez gero. Bertsolaria saritu zen honetan.

Manuel Olaizola "Uztapide"-ren nagusigoa ekarri zuten 1962, 1965 eta 1967ko txapelketek. "Uztapide" kantatua zen 1936ko finalean, eta 1940-50 urte latzetan Basarrirekin batera zen ibilia herriz herri, bertsolaritza publikoaren ale bakan gisa. Basarrik errespetua eragiten zuen era berean zen maitatua Uztapide, molde zaharreko bertsolari seguru eta egokia.

1962 - Euskaltzaindiak antolatu zuen. Aurrekoan bezala, herrialdeetako txapelketak jokatu ziren aurrez. 84 bertsolari aritu ziren horietan. Egun bateko ekitaldian jokatu zen Txapelketa Nagusia Donostiako Astoria antzokian (1962-12-30); hamar bertsolarik jardun zuten eta Uztapidek etxeratu zuen txapela.

1965 - Euskaltzaindiak antolatu zuen. 113 bertsolari aritu ziren aurrez antolatutako herrialdeetako txapelketetan. Donostiako Anoeta pilotalekuan jokatu zen Txapelketa Nagusia (1965-01-01), eta aurrekoetan bezala 10 bertsolarik jokatu zuten txapela. Irabazlea, bigarrenez, Uztapide izan zen.

1967- Euskaltzaindiak antolaturiko laugarrena. 83 bertsolarik parte hartu zuten herrialdeetako txapelketetan. Hauetan hautatutako zortziak eta, aldi honetako besteetan bezala, au-

rreko txapeldunak eta txapeldun-ordeak jokatu zuten Txapelketa Nagusia Donostiako Anoeta pilotalekuan (1967-06-11). Uztapidek jantzi zuen txapela hirugarren aldiz.

Berrikuntza handi bat ekarri zuten 1980 eta 1982ko txapelketek. **Xabier Amurizak** ekarri zuen berrikuntza eta txapela eramanez. Ordurako ezagunak ziren Zamorako kartzelatik bidalitako bertso ederrak, baina gutxik uste zuten bat-batekotasunean halako maisutza erakutsiko zuenik: bertsolaritzaren historiaren oinordeko jakile, poesia modernoari zabalik, iruditeria berri zuten, metafora sartu zuten, doinu berriak ekarri zituen... Eta bizkaitar kontziente moduan, euskara batuan kantatu zuten, hautu horrek hegoaldeko bati neurrian suposatzen dizkion zailtasun guztiak gaindituz. Bere lanak egungo bertsolaritza modernoaren oinarriak ezarri zituen.

1980an, ia hamahiru urteren buruan, antolakuntza molde berriaz, antolatzaileek hautatutako 16 bertsolariren artean jokatu zen. Bi kanporaketa jokatu ondoren, Donostiako Balda pilotalekuan burutu zen finala (1980-01-06). Xabier Amurizak bere lehen txapela jantzi zuen.

1982 – Euskaltzaindiak antolaturiko seigarrena eta azkena izan zen hau. Parte-hartze zabala izan zuen, 67 bertsolari, eta sailkapen saio ugari jokatu ondoren Donostiako Balda pilotalekuan jokatu zen finala (1982-12-20). Bigarren aldiz Xabier Amurizak jantzi zuen txapela.

Bertsozale Elkarteak antolatutako txapelketak: 1986-...

Txapelketaren antolamenduaren inguruan sorturiko desadostasunak zirela bitarteko, halako hoztasun eta urruntze bat gertatu zen bertsolarien eta Euskaltzaindiaren artean. Bertsolariek berek, zenbait bertsozaleren laguntzaz, antolatu zuten 1986koa. Erabaki honek ekarriko zuen handik laster Bertsozale Elkartearen sortzea.

1986 - Euskal Herriko Bertsolari Elkarteak (EHBE) antolatutako lehena. Txapelketaren eraketari buruzko desadostasun batzuk tarteko, bertsolariek bertsozale hainbaten laguntzaz bere gain hartu zuten Txapelketa Nagusia antolatzeko ardura. Herrialdeetako txapelketa eta kanporaketetan 91 bertsolari aritu ziren. Txapelketa Nagusian 40 lehiatu ziren eta Donostiako Anoeta belodromoan jokatu zen finala (1986-03-23). **Sebastian Lizasok** jantzi zuen txapela.

1989 - EHBEren aroko bigarrena. Aurreko urteko eraketa berarekin burutu zen txapelketa hau ere. 109 partaide izan zituena edizio honek eta hauetako 40k jokatu zuten Txapelketa Nagusia. Donostiako Anoeta belodromoan jokatu zen finala, beti bezala, goiz eta arratsaldeko saioan (1989-12-17). **Jon Lopategik** jantzi zuen txapela.

1993 - EHBEk antolatutako hirugarrena. 101 bertsolari lehiatu ziren herrialdeetan. Hauetako 40rekin jokatu zen Txapelketa Nagusia. Bertsolari hautatu guztiak maila beretik hasi ziren eta Donostiako Anoeta belodromoan eman zioten txapelketari amaiera (1993-12-19). Belodromoa mukuru, **Andoni Egañak** bere lehen txapela janztea lortu zuen.

1997 - EHBEk (Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak ordurako) antolatu zuen. Bertsolaritzaren "boom" a apur bat apaltzen hasia zen ordurako, eta bertsozaleen neurriko txapelketa eratzeke ahalegina egin zen. Aurretiaz jokatutako herrialdeetako txapelketak kontuan harturik 114 izan ziren lehiatutako bertsolariak, eta hauetako 42k jokatu zuten Txapelketa Nagusia. Sailkapen ekitaldi guztiak saio bakarrera jokatu ziren eta Donostiako Belodromoan eman zitzaion amaiera goiz-arratsaldez luzatu zen finalean (1997-12-14). **Andoni Egañak** bere bigarren txapela jantzi zuen.

BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA 2001

XIII. Bertsolari Txapelketa Nagusia izan da aurtengo hau, Bertsozale Elkartearen eskutik antolatzen den laugarrena. Aipatu gabe ezin laga, euskara hutsez gauzatzen den ekitaldi handietakoa dela. 1997koa amaiturik, Txapelketa Nagusiari buruz egin duen gogoetarik sakonena bideratu zuen Bertsozale Elkartek. Bertsolari, gai-jartzaile, epaile eta antolatzaileek hartu zuten parte bertan, eta burutu beharreko aldaketen oinarriak jarri ziren.

Bi aldaketa hauek dira aipagarri: protagonismoa izan dute bertsolariek eraketan (Antolakuntzan ordezkaritza eta lanak eta finalaren egitura erabakitzeko ardura), eta partaidetza erregulatuta da: 1986ez gero antolatu diren txapelketetako finalistei oraingoan eta gerora antolatuko direnetan parte hartzeko eskubidea bermatzen zaie; herrialde guztietako gutxiengo ordezkaritza ziurtatu da; eta partaidetza hori erregulatzeko sistema erabaki da.

Ordutik hona, bestalde, gai-jartzaile eta epaileen lan-irizpideak berrikusi dira, eta langintza hauetan jende berria trebatzen ahalegin batzuk egin dira. Arlo horietan guztietan Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Nafarroa eta Iparraldean egindako lanaz baliatuko da txapelketa hau. Herrialde hauetako txapelketa eta kanporaketak kontuan harturik, 173 parte-hartzaile izango ditu Txapelketa honek: 73 gipuzkoar, 58 bizkaitar, 20 arabar, 18 nafar eta 4 ipartar. Hauetatik guztietatik, 37k jokatu dute Txapelketa Nagusia; hogeita sei urtekoa da bertsolari hauen batez besteko adina.

* * *

ELKARRIZKETAK

Andoni Egaña: “neu neure antzekoegia izateko beldur nintzen”

Erregistro aldetik lan egin duzula nabarmena izan da, bizkuntza maila jasoa erabili duzu erriman batez ere, hori izan al da zure diferentziazio estrategia?





Bai, hala esan daiteke. Gainera bosgarren aldia nuen segidan Belodromoan. Eta bosgarren aldian dagoenak jendea aspertzeko arriskua dauka. Neu nire antzekoegia izateko beldurra neukan. Pentsatu nuen intento txiki bat egin behar nuela zerbait berritzeko eta uste dut pixka bat lortu nuela.

Zeure bertsokeran aldaketa horretaz gain, Belodromoa bera ere aldatu egin da, bertsolari gazteagoak, entzulegoa... zer aldaketa nabarmendu dira batik bat?

Bertsolariak gazteagoak izatean publikoa ere gaztetu egiten du. 1986ko finalean adibidez, Amets Arzallus eta Sustrai Colina ume txiki-txikiak izango ziren. Edo bada-
kit Unai eta Igor lehenengo aldiz joan zirela Donostiara autobusez Belodromora oso gazte zirelarik.

Belodromoan lehenengo aldiz egin da sistema hau, hau da, azkenengo bi geratzea bukaeran. Lehenago Balda pilotalekuan egin zen

Lopategi eta Amurizarekin. Eta badirudi funtzionatu egin duela. Bi geratu eta sei kanporatzea politagoa da zortzi, lau eta bi geratzea baino. Kanpoan gelditzen diren seirak ere gehien-goarekin gelditzen dira eta ez dira gaizki geratzen.

Nola ikusi zenituen zure bertso lagunak?

Oro har oso ondo. **Maialen** hasi eta bukatu dena, oso ondo. **Aitor** ere oso ondo ikusi nuen batez ere goizean. Agian bere espezialidade diren bakarkako gaitan ez hainbeste. Beraz, bakarkoetan pixka bat asmatu izan balu gurekin batera izango zen puntuazioan.

Maia ondo ikusi dut, orain lau urte baino errezago. Baina oraindik ere beste salto bat suposatzen diot Maiari. Hanka handiak dauzka gainera salto egiteko. Bere bidetik uste dut aurrera egin dezakeela eta egingo duela gainera.

Sustrai Colina haize freskoa izan da. Benetan toreroa da tipoa Bertsotan ondo egiteaz gain arte eszenikoak ondo dominatzen ditu. Jarrera oso alaia eta oso emankorra dauka.

Durangerrei dagokienez, **Unai** oso ondo ikusi nuen bertso-tan, ez nintzen konturatu poto egin zuenik. Egia esan biren





izena esatean Unaiena esan balu ez nintzen harrituko. Horrek esan nahi du zer berdintasuna eta zer maila izan zen finalean. Uste dut Unaiek ere ahalegin handia egin duela eta badoala aurrera.

Igorrena pena izan da. Txapelketa honetan Igorren maila gorena kartzelako hiru bertsotan ikusi dugu. Nire ustez kartzelako onena izan zen. *Manu Chao*-ren doinua erabiliz botatako bertsoak hain onak egin zituen, doinu berriaren distira kendu egin ziola testuari. Hain testu onak edozein doinutan balio du.

Eta **Irazuk** ez zuen egun ona izan baina horrek ez du esan nahi ezer. Berriz bi egun barru zortziok txapelketa jokatu beharko bagendu, txapeldun izan zitekeen bera ere, duda gabe gainera..

Maialen ez zegoen ezer barkatzeko, baina hori ez al da mesedegarri?

Bai eta gainera etorkizunaren abisu bat da. Bertsotan ibiltzen garenok bagenekien zer pasa zitekeen. Nik egun ona izan ez banu eta hauetako batek edo bik egun ona izan gainditu egingo ninduten. Nire lana egun on samarra izatea zen eta gainditzten ninduenak maila ona eman zuelako gaindituko ninduen. Hori egitera joan nintzen eta gustura nago; Batez ere sumatzen dut kalean jendeak onartu egin duela belaunaldi berri honen bertsolari maila altua eta hori guk onartzen genuen zerbait zen, baina ez dakit gizartea zenbaiteraino ohartua zegoen horretaz. Hori izan da aurtengo beste lorpen garrantzitsu bat.

Gai politikoak, zeharka bada ere, presente izan ziren saio guztian zehar; Hitza jolas biburtu zen ala konpromiso?

Nik uste dut bertsolariok momentuan momentuan erabakitzen dugula zenbaiteraino konprometitu geure hitza, geure bizimodua eta geure izakera. Politika gaiak izan ziren baina ondo planteatuta. Adibidez, iheslariaren eta ertzainaren gaia ematean, amen ikuspuntutik jarri gintuzten bertsotan eta orduan horrek egiten duena da errealitate bat islatu baina gozatuarazi.


Erre eta erre ikusi zintugun oboltza gainean, baina erretzen al du bertsoak?

Bertsoak ez du erretzen. Erretzen duena da bertsoaren inguruan ibiltzen dugun martxa. Batetik bestera joan, jan eta edan...Baina bertsoa oso gauza polita da, norbere sentimendu eta pentsamenduak adierazteko oso gauza polita.

Maialen Lujanbio: “ez dut plaza piloa egin nahi, egiten ditudanak mimoz egitea baino”.

Ze sentitzen da ia 7000 bertsozale bost minutuz zutik txaloka dituzunean?

Egia esan, gauza handia, izugarria da baina une hartan zaparrada bat bezala jausten zaizu. Tabladuan zaude, beroan



zaude eta ez dakizu oso ondo nola hartu. Ni harrituta gelditu nintzen. Iruditzen zitzaidan pasada bat zela eta ez nekien zer egin, jaiki eta nik ere jendeari txalo egin nion. Gerora, jendeari hitzez kontatzen diozunean orduan konturatzen eta emozionatzen zara gehiago.

Eskarmentua daukazu bai txapelketetan eta bai plazetan. Plazako eta txapelketako bertsolariak bereizten dituzte batzuek; Publikoa, giroa, tentsioa... zer aldatzen da txapelketatik plazara?

Batez ere jarrera. Jarrera ezberdina hartzen dugu. Plazetan beti ibiltzen gara lasaiago, berez irteten zaigunaren peskisan gaude. Plazetan badaude balio batzuk txapelketan baino gehiago baloratzen direnak, adibidez komunikazio gaitasuna.

Zer aldatzen den batetik bestera? Alde batetik, kantakera aldatzen dugu. Bestetik, hitz bakoitza konszienteki neurtzen dugu. Jarrera ere neurtu egiten dugu. Saio arrunt batean axolagabe ari gaitezke noiz edo noiz; plazetan ideiak baloratzen dira gehiago eta forma gutxiago. Txapelketan oster, bertsoa gehiago aseguratzen jo ohi dugu.

Kartzelako lanari beldur zeniola aitortu zenuen finalaren aurretik. Zelako sentsazioa daukazu zure kartzelako lanaz?


Oso sentsazio ona. Beharbada denbora asko generaman bertsoan eta behin azken bitara iritsita nik neure saria lortuta neukan. Jaialdi batean bezala sentitu nintzen, Belodromoan lujuzko jaialdi batean. Lasaitu egin nintzen baina burua oso azeleratuta neukan. Bukaeran aritu nintzen lasaien, errezen eta gusturen. Bakarkakoarekin baneukan halako fijazio txiki bat, neure buruari eta jendeari adierazteko egin nezakeela bakar-

kakoan ondo. Eta gustura nago neure buruarekin neukan apustu hori irabazi dudalako.

Bestalde, gure arteko giroa ere oso polita izan da, ekipo sentrazio handia izan dugu denbora guztian. Denon artean zerbait oso polita bizi eta eraiki izan dugun sentrazioa daukat. Jendeak ere nabari zuen hori eta uste dut horregatik sortu zela halako komunioa eta halako magia.

Kalean bertsolari belaunaldi berri bat onartu denaren sentrazioa ei dago eta hori izan da txapelketa honek irabazi duen apustuetako bat.

Gure taldeak bertsotan urte asko zeramatzan baina oraindik bertsolari gaztetzat hartzen gintuzten. Eta "gazte" deitze horrek esan nahi zuen ondo aritzen ginela baina... asko aipatu da txapelketan falta zen jendea, badirudi duda bat bazegoela gu leku hori betetzeko gai izango ginen edo ez. Beraz, gure zeregina zen sinisgarritasun hori irabaztea, ez zeudenak faltan bota ez zitezen, jendea konturatu zedin gazteak ginela baina ondo ari gintezkeela bertsotan.. Zenbaitek ez gintuen oraindik errekonozitzen bertsolari bezala eta beraz, errespetu hori irabazi. Eta ez diot gu zortziorongatik bakarrik, final aurrekoetan aritu izan



pelketan falta zen jendea, badirudi duda bat bazegoela gu leku hori betetzeko gai izango ginen edo ez. Beraz, gure zeregina zen sinisgarritasun hori irabaztea, ez zeudenak faltan bota ez zitezen, jendea konturatu zedin gazteak ginela baina ondo ari gintezkeela bertsotan.. Zenbaitek ez gintuen oraindik errekonozitzen bertsolari bezala eta beraz, errespetu hori irabazi. Eta ez diot gu zortziorongatik bakarrik, final aurrekoetan aritu izan

zirenak ere berdin, kanpoan geratu ziren arren finalean ere egon zitezkeen eta.

Eta maila pertsonalean proiekturik?

Orain nahiko nuke txapelketarako egindako esfortzua pixka bat mantentzea, hau da, ez dadila izan etsamina aprobatzeko lan bat eta kitto. Izan dadila jarraipena izango duen zerbait. Ez intentsitate horretan baina plazaz plazako jardunean bertsoa atentzioa sortzen dizun zerbait izan dadila. Bertso saioak mimitu eta landu eta horretarako dedikazio handia behar duzu. Buruan bertsoa eduki eta ez asko gehiago. Baina ez dut kriston plaza piloa egin nahi, nire bertso erritmoa mantendu nahi dut eta egiten ditudanak mimosz egin.

* * *

FINALISTEN KRONIKA

Andoni Egaña

Bernardo Mandalunizek txapeldunaren esateko unean, berdin-berdin zitzaidan batarena edo bestearena entzun. Harritu egin nintzen. Berdin. Niri? Lagunarteko futbito partidetan ere irabazi egin nahi izaten dut eta!

Maialen Lujanbio

Saiatzen naiz, baina ezin txapelketaz analisi hotzik egin. Ez eta berorik ere. Gehiegitan azaldu dut dena; sarriegi eskatu didate kontatzeko... esan beharraren esan beharraz, neronek esandakoa sinetsi dut azkenerako.

Jon Maia

Lau urtetan lauhun plaza baino gehiago egiteak erabat cragin du nigan, final haren aurretik urtean berrogeita hamar



bat egiten baintuen... txapelketa hura ziaboga bat izan da nire bertsolari ibilbidean. Ordutik naiz bertsolari. Bertsolari moduan bizi naiz eta balantza gozatzearen aldera gehiagotan erortzen da, lehen ez bezala. Batzuetan nahi dudana esatera iristen naiz! Asko zor diot txapelketa hari!

Sustrai Colina

Zortziok dakigu, zientoka bertsolariren ordezkari ginela gaurkoan. Zortziok dakigu, elkarte baten lanaren eskaparattea zela gaurkoa. Zortziok dakigu, jende anitzek kantatu duela bakoitzaren ahotik. Zortziok dakigu kunplitu dugula. Horrexegatik, agian, utzi diogu emozioari hitzen tokia hartzen. Zirrarak erabat umildu banau ere, harro nago bizi izan dudan tokitik bizi izanaz.

Unai Iturriaga

“...nahiko sari da Belodromoan / bertsolari

izatea". Nire burua urtebetea bertsoaren katakunbarik ilunean ikusi ostean, Belodromoan egoteak horixe esateko gogo piztu zidan original edo gustagarri izatearen gainetik.

Igor Elortza

Banuen gogoia egun handia iritsi zedin. Baina egun handiak, lau urtean behin baino ez dira etortzen. Eta bata bestearen ostean bi egun jarraian joaten utziz gero, badoazkizu zortzi urte. Denbora luzea zain egoteko. Baina itxaroten jakin behar, gogoia bera ez da-eta ia inoiz nahikoa izaten. Behar dira gaitasuna, prestakuntza eta kemenak. Beharrezkoa da mugak onartu, gogoia egin eta umila izatea ere. Behar dira egun onak, behar dira egun txarrak. Egun txiki asko bat handia iritsiko bada. Hala dio esaerak ere. Egunero ikasten delako zer edo zer. Egun gozoetatik zein egun gazietatik. Eta baita egun gazi-gozoetatik ere.

Jesus Mari Irazu

Errezeloa daukat ez ote gabiltzan zeharo ondo kritikan, bertsoa aztertzeko bidean, eta bertso onaren paradigma finkatzeko. Eta hori ere kutsatu egiten da... bertsolaritza ez da poesia eta ez da literatura klabea ulertu behar. Komunikazio estrategia bezala ulertu eta aztertu behar da.

Leire Bilbao